

AURKEZPENA

OEEren Osasun Biltzarrari buruzko informazioa zabaltzeko eskaera

Jaun/Andre agurgarriak,

Honen bidez, OEEk urtero egiten duen Osasun Biltzarraren berri eman nahi dizuegu. Aurten martxoaren 22 eta 23an egingo da Gasteizen.

Ikusiko duzueenez, aurtengo gaia hauxe da:

Osasungintza berria? Bere jardunetik ikasten duen osasun-sistema

Azken hamarkadan tresna oso indartsu bat sortu da: osasun-jardueraren digitalizazioa. Baina, oraingoz, ez dakigu nola aprobetxatu tresna horrek duen ahalmen guztia. Egunero elikatzen dugu milaka daturekin, baina kasu gehienetan sistema informatikoan geratzen dira inork erabili gabe. Nola atera atarramentua gure osasun-praktika hobetzeko?

Hiru mahai-inguru eta tailer bat izango dugu:

- Ezagutza sortzen: frogetan oinarritutako praktikatik, praktikak sortutako frogetara
- Praktikaren egokitasuna
- Adituen eta gizartearen arteko harremanak
- Tailerra. Depreskripzioa: gutxituz gehitu

Adeitasunez,

Felipe Aizpuru Barandiaran eta Ramon José F. Arrizabalaga Guereñu

Batzorde Antolatzailearen eta Zientifikoaren izenean

En nombre del Comité Organizador y del Comité Científico

www.oegunea.eus - oeegunea.eus - 944 00 11 33

Osasungoa Euskalduntzeko Erakundea

Idazkaritza

944 00 11 33 oeegunea.eus